



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

## IV. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2021eko ekainaren 9, 10 eta 11a  
Gasteiz, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

**Intonazio kontornu unibertsalen  
eta ez unibertsalen pertzepzioa:  
galderak eta adierazpenak**

*Markina-Xemeingo euskaran, Izaro  
Bedialauneta Txurruka, Jennifer  
Zhang eta Jose Ignacio Hualde*

43-50 or.

<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iv.01.05>



# Intonazio kontornu unibertsalen eta ez unibertsalen pertzepzioa: galderak eta adierazpenak Markina-Xemeingo euskaran

Bedialauneta Txurruka, I., Zhang, J. eta Hualde, J.I.  
*University of Illinois at Urbana-Champaign*  
*izarob2@illinois.edu*

## Laburpena

Intonazio sistemetan joera unibertsalak izanda ere, badira salbuespenak. Horren harira galdera bat sortzen da: intonazio-ezberdintasunek zenbaterainoko eragina izan ditzakete interpretazio okerretan hizkuntza bereko aldaeren artean? Erantzuteko Markinako esaldi deklaratiibo neutral, enfatiko, eta galderen pertzepzioak aztertu ditugu. Parte-hartzaileak Markinako euskara, Markinakoa ez den euskara edota gaztelania ama-hizkuntzatzat daukaten euskaldunak izan dira. Estimulu bakoitza behin entzun ondoren, galdera bat den ala ez erantzuteko eskatu zitzairen. Emaitzen arabera, Markinako hiztunek estimuluak beste taldeek baino zehatzago interpretatu zituzten. Emaitzek, intonazio esanahiaren ikuspegi ez-unibertsalista babesten dute, joera unibertsalekin bat ez datozen kontornuen interpretazioan.

Hitz gakoak: Markinako euskara, intonazioa, unibertsaltasuna, galderak, pertzepzioa

## Abstract

*The interpretation of intonational contours is not universal. An issue that arises is to what extent intonational differences may lead to misinterpretation across varieties of the same language. We examined the perception of statements and questions in Markina Basque by native speakers, speakers of other Basque dialects, and L1 Spanish/L2 Basque speakers. We selected 8 texts, four multi-phrase and four single-phrase. The pitch contours of these recordings were also manipulated. MB speakers were significantly more accurate in their interpretation of the unmanipulated and manipulated stimuli than the other two groups. The results support a non-universalist view of intonational meaning in the interpretation of contours that do not conform with universal tendencies.*

*Keywords: Markina Basque, intonation, universality, interrogation*

## 1. Sarrera eta motibazioa

Euskaraz, gehienetan, galdera absolutuen (bai/ez galderen) eta adierazpen-perpausen (esaldi enuntziatiibo edo deklaratiiboan) arteko kontrastea ez dago lexikoan edo joskeran, intonazioan baizik. Euskal hizkera batzuetan *etorri al da?* edo *etorri dea?* bezalako egiturak erabiltzen badira ere, beste euskaretan ez dago horrelakorik. Hala ere, badaude beti zenbait ezaugarri akustiko, galderekin lotzen direnak, hauek deklaratiiboetatik ezberdintzeko. Normalean, gai gara “**mendira doa**” eta “**mendira doa?**” perpauzetan mezua ulertzeko eta interpretatzeko (baieztapena/galdera), beraien intonazioan erreparatu. Dena den, galdera absolutuen intonazio kontornuak ez dira berdinak euskal hizkera guztietan eta kontornuen interpretazioa ez da unibertsala (Ladd, 1980).

Intonaziozko joera batzuk oso zabaldua daude munduko hizkuntzetan. Gehienetan esaldi deklaratiiboek beheranzko mugimendu bat erakusten dute bukaeran. Galderek, aldiz, gorakada bat izan ohi dute bukaeran (Gussenhoven, 2002). Horretaz gain, hizkuntza askok galderen tonu maila orokorra altuagoa izan ohi dute. Hala ere, esan bezala, badaude salbuespenak.

Badira adierazpen-perpausek bukaeran tonu gorakada bat duten hizkuntza barietate batzuk. Horietako bat Belfasteko ingelesa da (Grabe et al., 2004) baina ez da kasu bakarra. Dominikar Errepublikako gaztelanian ere antzeko igotze bat gertatzen da esaldi perpaus mota hauetan askotan (Willis, 2010).

Beste kasu batzuetan galderak dira beherazko mugimendua dutenak. Honen adibidea chickasaw hizkuntza izango litzateke. Bertan, beherakada batekin bukatzen dira galderak (Gordon, 2005). Aldiz, beste hizkuntza batzuetan galderek tonu altuago bat erakusten dute, baina beheranzko tonu-marka dute amaieran, kontornu zirkunflexu bat, hain zuzen ere. Besteak beste, galdera kontornu zirkunflexuak honako hizkuntzetan ohikoak dira: hawaiiera (Murphy, 2013), hungariera (Gósy eta Terken, 1994) eta Puerto Ricoko (Armstrong, 2010) eta Argentinako gaztelania (Gabriel et al., 2010). Euskal Autonomi Erkidegoko hizkuntza ofizial bietan, euskaran

(Hualde, Elordieta eta Elordieta, 1994; Elordieta, 1998; Aurrekoetxea, Gaminde eta Iglesias, 2011a) eta gaztelanian (Elordieta, 2003, 2006; Elejabeitia, Iribar eta Pagola, 2005; Gaminde Andonegi, Garay eta Etxebarria, 2011; Robles-Puente, 2011) ere amaiera zirkunflexu hori aurkitu da. Bukaera hori daukatenak, beraz, nahiz eta goranzko joera unibertsalez ez bukatu, azken tonu altuagoaren joerarekin bat datoz.

Unibertsaltasun joerek, edota hauen salbuespenek, galdera bat sorrarazten digute: bai/ez galderak ulertzeko orduan, intonazioan dauden desberdintasunek zenbateraino baldintza dezakete hizkuntza bereko aldaeren arteko elkar-ulermena? Gaminde et al.-en (2013) euskarazko bai/ez galderen pertzepzioa aztertu zuten bai ama hizkuntza euskara zeukaten hiztunekin eta baita gaztelania zeukatenekin ere. Bukaerako muga-tonu ezberdinak zituzten galderak erabili zituzten, hau da, batzuk zirkunflexuz bukatzen ziren eta beste batzuk, joera unibertsalekin jarraituz, goranzko kontornuarekin. Ezusterako, ama hizkuntza bietako parte-hartzaileek, okerren goranzko galderak ulertu zituzten. Ez hori bakarrik, gaztelania ama hizkuntza zuten gehienek galdera hauek enuntziatibo moduan entzun zituzten.

Gure hipotesiaren arabera, parte-hartzaileen ama hizkuntzaren intonazioarekin edota joera unibertsalekin bat ez baldin badatoz, intonazio-kontornuak ez dira hain garbi ulertzen. Horrela, hiztunaren eta entzulearen komunikazioan, mezuaren igorpenaren eta ulermenaren artean, haustura bat gerta daiteke.

Hipotesia egiaztatzeko, Markinako-Xemeingo euskarazko esaldi deklaratiibo eta bai/ez galderen pertzepzioa aztertu dugu. Honetarako, Markinako euskara, beste euskal hizkera eta gaztelania ama-hizkuntza dutenen ulermenaz baliatu gara. Kontuan hartu behar da markinarrak izan ezik, besteek Markinako euskara ez den beste euskara bat ikasi dutela.


## 2. Arloko egoera eta ikerketaren helburuak

Markinako euskaran, Bizkaiko beste hizkera batzuetan bezala, hitzak lexikoki azentudunak edo azentugabeak izan daitezke; konpara itzazu *katu baltzá da* (azentu bakar bat) vs *léku baltzá da* (bi azenturekin) (Hualde, 1997, 2000). Gauzak gehiegi ez korapilatzeko, gure estimuluak osatzeko erabili ditugun hitz guztiak lexikoki azentugabeak dira. Honelako egituretan taldekatze prosodikoa desberdina da aditzaren arabera. Partizipio bat baldin badugu, kasu neutralean dugun azentu bakarra galdegaiaren azentua da eta aditzaren aurre-aurrean dagoen sintagman kokatzen da Markinako euskaran; adib. *katu báltza erosi dot* (Lekeition: *katu baltzá erosi dot*, ikus Hualde, et al. 1994, Elordieta 1998). Aditza trinkoa bada, aldiz, azentua aditzean jartzen da: *katu baltza dátór* (Lekeition: *katu baltza datór*). Esan dezakegu partizipioekin bi talde prosodiko ditugula: [*katu báltza*] [*erosi dot*], eta aditz trinkoekin, aldiz, talde prosodiko bakar bat: [*katu baltza dátór*]


### 2.1. Markina-Xemeingo galdera absolutuak, adierazpen perpausak eta enuntziatibo enfatikoak

Markinako euskarako galderek joera unibertsalak eta ez-unibertsalak erabiltzen dituzte galdera absolutuak, adierazpen-perpausetatik ezberdintzeko. Esaldi prosodikoen kopuruaren arabera ezberdintasunak azaleratzen dira joeretan. Alde batetik, esaldi prosodiko bat baino gehiago dutenen esaldiek azken silaban kontornu zirkunflexu bat gehitzen dute, galdera moduan ulertu daitezzen (1. eta 2. irudiak). Honenbestez, mugimendu gehigarria bat dator galderen amaieran edo azken silaban, tonu altuagoa izateko joera unibertsalarekin. Bestalde, talde prosodiko bakarrekoetan (aditz trinkoa dutenetan), galdera absolutuak eta adierazpen-perpausen arteko ezberdintasuna amaierako H\* L mugimenduaren lerrokatzean datza, neurri batean behintzat (3. eta 4. irudiak). Alde hori hizkuntzaren ezaugarri espezifiko bat da, nahiz eta joera unibertsalen arabera galderek ere tonu altuagoa izateko joera duten. Azkenik enuntziatibo enfatikoek mugimendu zirkunflexu zabala daukate amaieran, galderak bezala. Esaldi hauek erabiltzen dira egiatasuna adierazteko; adib. *Ez dator bixer, ezta? Bai, bixer badator!*. Talde prosodiko bakarra duten galderak eta enuntziatibo enfatiko hauen arteko ezberdintasuna, kontornu zirkunflexuaren lerrokatze lekuan datza (4. eta 5. irudiak).

**1. irudia. Adierazpen-perpaua, bi talde prosodiko. ‘lagúne etorri da’.**




**2. irudia. Bai/ez galdera, bi talde prosodiko. ‘lagúne etorri da?’**




Markinako eredu hori ez da azaltzen beste euskal barietate batzuetan (Elordieta eta Hualde, 2014). Talde prosodiko bat baino ez dutenetan, aldiz, H\*L bakarra dago, enuntziatuen azken-aurreko silabarekin lerrotatzen dena (3. irudia); galderetan, berriz, amaierako silaban kokatzen da (4. irudia).


**3. irudia. Adierazpen-perpaua, talde prosodiko bakarra. ‘abadianá da’.**



#### 4. irudia. Bai/ez galdera, talde prosodiko bakarra. ‘abadianá da?’



#### 5. Irudia. Enuntziatibo enfatikoa. ‘bixer badátóz’.



## 2.2. Helburuak

Intonazio kontornuen pertzepzioa joera unibertsaletatik datorren edota hizkuntza espezifikoa den jakin nahi dugu. Horretarako Markinako bai/ez galderen, enuntziatibo neutroen eta enfatikoen intonazio kontornuen ezaugarriez baliatu gara.

Hasteko, azken silabako kontornu zirkunflexuak galderen eta enuntziatiboen ulermenean daukaten eragina aztertu nahi dugu, horren tonu altuaren presentziak eta lerrokatzea kontuan hartuz. Gero, goian aipatu dugun bezala, talde prosodiko kopuruaren arabera, galderak eta enuntziatiboak ezberdin alderatzen dira, joera unibertsalez eta ez unibertsalez baliatuz. Beraz, esaldien ulermenean zeintzuk diren joera erabilienak ikusi nahi dugu.

Aipatutako joerez gain beste ezaugarri batzuk ere galderen ulermenean eragina izan dezakete. Esaterako, amaierako bokalaren luzapena edota esaldiaren melodia. Dena den, guk azkenengo silabaren tonu mugimenduak duen eragina bakarrik aztertuko dugu hemen.

Hau esanda, Markinako euskaldunen pertzepzioa beste euskara bat ama hizkuntzatat eta gatzelania lehenengo hizkuntzatat dutenen antzekoa al da Markinako erara esaldiak entzuterako orduan? Euskal hitzun ezberdinen pertzepzioa ezagutu gura izan dugu.

## 2.3 Metodologia

Estimuluak sortzeko zortzi testu erabili ditugu. Horietatik lau talde prosodiko bakarrekoak dira eta beste lau, bat baino gehiagokoak. Testu horiek esaldi deklaratiBoen intonazioarekin eta galderarenarekin grabatu ziren. Beraz, guztira 16 jatorrizko grabazio izan ditugu. Grabazio hauen tonu kontornuak ere manipulatu ditugu, beti ere bakarrik azkenengo silaba aldatuz, galderek deklaratiBoen kontornua izan zezaten eta alderantziz. Hori talde prosodiko anitzeko deklaratiBoetan azken gorakada-beherakada bat gehituz edo kenduz, eta talde prosodiko bakarreko deklaratiBoetan beherazkoaren kokapena aldatuz lortu zen.

Lan hau aurrera eramateko, guztira Markinako euskararen 15 hiztun, beste euskalki batzuetako 23 eta gaztelania ama hizkuntza duten 20 izan ditugu parte-hartzaile gisa. Galdeketa Qualtrics plataforma erabiliz gauzatu zen. Parte-hartzaileek estimulu bakoitza behin bakarrik entzuteko aukera izan zuten. Jarraian entzundakoa galdera bat zen edo ez galdetu zitzairen, ‘bai’ edo ‘ez’ botoia sakatzeko eskatuz.

## 3. Ikerketaren muina


### 3.1. Aurreikuspena

Eraitza ezberdinak espero ditugu partehartzaile talde desberdinentzat, gure aurreikuspenen arabera. Hasteko, Markinako euskararen hiztunek estimulu originalak espero den bezala interpretatuko dituztela eta gure manipulazioek haien pertzepzioa aldatuko dutela aurreikusten dugu. Gainerako taldeentzat, aurreikuspen desberdinak ditugu estimuluaren talde prosodikoen kopuruaren arabera. Kontuan izanda euskararekin kontaktuan dagoen gaztelaniak amaieran zirkunflexu kontornua duela galderetan (Robles-Puente, 2011), Markinako talde prosodiko bakarren galderen kontornuaren antzekoa, hauetan mezua zuzen ulertzeko arazorik ez dutela izango espero dugu. Bestalde, talde prosodiko bat baino gehiago dutenen kasuan zehaztasun handiagoz identifikatuko dituztela aurreikusten da; honelako esaldiak baitira unibertsalki ohikoenak (amaierako tonu altuaren presentzia galderetan). Amaitzeko, enuntziatibo enfatikoen kasuan, Markinako euskaldunek deklaratiBo gisa identifikatzea espero dugu, eta gainerako hiztunek galdera gisa, amaieran kontornu zirkunflexu zabal bat daukatelako.


### 3.2. Emaitzak

Lortutako parte-hartzaileen erantzunak R programa erabiliz aztertu ditugu. Erabilitako erregresio logistiko binomialak (*binomial logistic regression*) ama hizkuntzaren eta talde prosodiko kopuruaren arteko interakzioaren lotura erakutsi digu. Markinako hiztunen eta gainerako taldeen erantzunen arteko desberdintasuna esanguratsua da ( $p < 0,0001$ ). Beste euskalki batzuetako hiztunek eta gaztelania ama hizkuntzatzat daukatenean, Markinako euskaldunek baino askoz ere zehaztasun gutxiago azaldu dute manipulatu gabeko estimuluen interpretazioan (adibidez, 6. irudia), baita manipulaturako esaldietan ere (adibidez, 7. irudia).

### 6. irudia. Manipulatu gabeko deklaratioben interpretazioa




### 7. irudia. Manipulatutako esaldien interpretazioa



Esaldi enfatikoaren ulermenean ere ezberdintasunak azaldu dira. Alde batetik Markinako euskaldun gehienek, enuntziatibo legez interpretatu dituzte. Bestalde, gainontzeko taldeetako parte hartzaileen gehiengoak, galderatzat ulertu dituzte (8. irudia).

## 8. irudia. Esaldi enuntziatibo enfatikoekoen interpretazioa



Oro har, markinarrak ez diren parte-hartzaileek talde prosodiko bakarra duten estimuluak galdera gisa ulertzeko joera erakutsi dute eta bi talde prosodikoekoen kasuetan estimuluak deklaratiibo gisa interpretatzera hurbildu da beraien ulermena. Orokorrean manipulazioek eragin nabarmenagoa izan dute markinarrak ez diren hiztunen artean.

### 4. Ondorioak

Emaitzek intonazio esanahiaren ikuspegi ez-unibertsalista babesten dute. Gure kasuan, desberdintasun nabarmenak aurkitu ditugu Markinako euskaldunen eta beste euskara barietate bat ama hizkuntza edota bigarren hizkuntza legez ikasi dutenen artean, batez ere joera unibertsal etara egokitzen ez diren kontornuen interpretazioan.

### 5. Etorkizunerako planteatzen den norabidea

Emaitzei erreparatu ostean, kontuan hartuta markinarrak ez diren euskaldun zaharren ulermena gehiago hurbiltzen dela euskaldun-berrien ulermenera markinarren taldera baino, lan hau beste euskalki batzuetara zabaltzea interesgarria izango litzatekela uste dugu, intonazio kontornu ezberdinen ulermena hobeto ezagutzeko.

### 6. Erreferentziak

- Aurrekoetxea, G., Gaminde, I. eta Iglesias, A. (2011a), Corpus based prosodic variation in Basque: y/n questions marked with the particle *al*. *Estudios de fonética experimental*, 20, 11-31.
- Elejabeitia, A., Iribar, A., eta Pagola, R. M. (2005), Notas sobre la prosodia del castellano en Bizkaia. *Estudios de fonética experimental*, 14, 247-272
- Elordieta, G. (1998), "Intonation in a pitch-accent variety of Basque". *Anuario del Seminario de Filología Vasca 'Julio de Urquijo'*, 32, 511-569
- \_\_\_\_\_ (2003): The Spanish intonation of speakers of a Basque pitch-accent dialect. *Catalan journal of linguistics*, 2, 67-95.
- \_\_\_\_\_ (2006): «Spanish pitch accent alignment by Northern Bizkaian Basque speakers». Beatriz Fernandez e Itziar Laka (arg.), *Andolin Gogoan. Essays in Honour of Profesor Eguzkitza*. Bilbao: Euskal Herriko Unibertsitatea, 269-290



- Gaminde, I., Andonegi, A. R., Garay, U., eta Etxebarria, A. (2011), Los tonos de frontera de las oraciones interrogativas absolutas producidas por hablantes bilingües vasco-español. *Estudios de lingüística aplicada*, 54, 61-79.
- Gaminde, I., Romero, A., Etxebarria, A., eta Garay, U. (2013), Bai/ez galderen pertzepzioaren aldeak informatzaileen ama hizkuntzaren arabera: euskararen prosodia gaitasuna lantzeko zenbait datu argigarri. *Fontes Linguae Vasconum*, (116), 273-286.
- Gabriel, C., Feldhausen, I., Pesková, A., Colantoni, L., Lee, S.-A., Arana, V., eta Labastía, L. (2010): Argentinian Spanish intonation. P. Prieto. eta P. Roseano (arg.), *Transcription of intonation of the Spanish language*. Munich: Lincom Europa, 285-317
- Gordon, Matthew. (2005): Intonational phonology of Chickasaw. J. Sun-Ah, *Prosodic Models and Transcription: Towards Prosodic Typology*. Oxford: Oxford University Press, 301-330
- Gósy, M., eta Terken, J. (1994), Question marking in Hungarian: timing and height of pitch peaks. *Journal of phonetics*, 22(3), 269-281.
- Grabe, E., Kochanski, G., eta Coleman, J. (2004): Quantitative modelling of intonational variation. *Proceedings of Speech Analysis and Recognition in Technology, Linguistics and Medicine*. University of Oxford
- Gussenhoven, C. (2002): Phonology of intonation. *Glott international*, 6(9/10), 271-284
- Hualde, J. I., Elordieta, G., eta Elordieta, A. (1994): *The Basque dialect of Lekeitio*. Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo” XXXIV. Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao eta Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- Hualde, J. I. (1997): *Euskararen azentuerak*. Donostia eta Bilbao: Gipuzkoako Foru Aldundia eta UPV/EHU
- \_\_\_\_\_ (2000): Bizkaiko kostaldeko hizkerak atzo, gaur eta bihar.: K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak. Dialektologia gaiak*. Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU eta Arabako Foru Aldundia, 13-25
- Ladd, D. R. (1980): *The structure of intonational meaning*. Bloomington: Indiana University Press.
- Murphy, K. (2013), Universals and variation in question intonation: a comparative study of Hawaiian and HCE speech melodies. *Proceedings of University of Texas, Austin symposium about language and society*.
- Robles-Puente, S. (2011), Absolute questions do not always have a rising pattern: evidence from Bilbao Spanish. In *selected proceedings of the 5th conference on laboratory approaches to romance phonology*, 98-107
- Willis, E. (2010): Dominican Spanish intonation. P. Prieto. eta P. Roseano (arg.), *Transcription of intonation of the Spanish language*. Munich: Lincom Europa, 123-153

## 6. Eskerrak eta oharrak

Eskerrak eman nahi dizkiegu lan honetan parte hartu duten pertsona orori: ideiak proposatuz gidatu gaituztenei, ikerketan parte hartu duten boluntarioei eta baita lana burutzen lagundu diguten F3-ko taldekoei eta MidPhon 25-eko entzuleei. Zuen ekarpenei esker ikerketa hau burutzeko aukera izan dugu.